

Asentzio Eskisabel *Ataun, Gipuzkoa (1928)*

Aurkibidea

Biografia

Ataungo Eskisabel baserrian jaio zen 1928an. Gaztetan basoan lanean ibilitakoa da eta ikazkintzan ere aritua da. Gero fabrian ere lan egin zuen 30 urtez. Ikazkintzaren gaineko azalpen interesgarriak ematen ditu. Hitz-jario handiko gizona, Ataungo hainbat kontakizun eta ipuin kontatzen ditu, sorginei buruzkoak barne.

Zintak

ATA-005

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Ana Mari
- **Data:** 1991-01-01
- **Iraupena:** 51 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Murumendin ikatza egiten

- **Erref:** ATA-005/002
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:02:04. **Bukatu:** 00:04:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

"Tranpa-txondarra" eta "sorgin-garra" zer diren azaltzen du. Sorginari dama esaten zioten. 1945ean Murumendin ikatza egiten aritu zeneko pasarte bat kontatzen du.

2. Elurra iragartzen zuen behorraren ipuina

- **Erref:** ATA-005/004
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:05:23. **Bukatu:** 00:07:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

Ataundar gizon batek berari kontatutakoa kontatzen du. Behor batek menditik beherako bidea hartzen zuenean, elurra zetorrelako izaten zela azaltzen du.

3. Rafael zapatariari esnea eramaten zionekoa

- **Erref:** ATA-005/007
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:09:16. **Bukatu:** 00:11:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Rafaeli, zapatari zahar bati, esnea eramaten zionekoa kontatzen du. `San Anton´ deituriko gizona aipatzen du.

4. `San Anton´en inguruko kontuak I

- **Erref:** ATA-005/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>`San Anton´ esaten zioten gizonaren pasadizoa kontatzen du.</p>

5. `San Anton´en inguruko kontuak II

- **Erref:** ATA-005/009
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:13:31. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>`San Anton´ esaten zioten gizonaren pasadizoa kontatzen du. Kinkea zer zen azaltzen du.</p>

6. Pago-ikatz, gaztaina-ikatz, arte-ikatz...

- **Erref:** ATA-005/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:28:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Bero gehien ematen duen ikatza artearekin egiten dela dio. Errementariak gaztaina-ikatz nahi izaten zuten. Pagoarekin egiten dela onena dio. Hiru neurritara mozten zuten egurra, ilara bakoitzerako neurri bana.

7. Txondorra nola egiten den

- **Erref:** ATA-005/019
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:31:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondorra kargatu aurretik, txondor-zuloa edo txondor-plaza egiten da lehenengo. Orbela azpitik eta gainetik egurra jartzen zaizkio. Arbak jartzen zaizkio bueltan. Sua sartutakoan, arbak kendu egiten zaizkio; "arbeldia" esaten zaio. Suetxea aipatzen du. Arnasa hartzeko zuloak egiten zaizkio txondorrari ("hondo-zuloak" eta "lumea-zuloak"). Karga bi zaku ikatz direla azaltzen du. Ehun karga pasakoa egin zuen.

8. Suetxea zer den eta nola egiten den

- **Erref:** ATA-005/020
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:31:41. **Bukatu:** 00:34:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Argazki bati begira daude. Suetxea zer den azaltzen du. Hondo-ilarari "alkatea" edo "zila" jartzen zaio, lau egur gurutzean jarrita. Egur pitzatuak, 40 cm ingurukoak jartzen zaizkio gainean, eta gero egur motzagoak. Puntan suetxea egoten da; handik sartzen da sua palarekin. Gero tapatu egiten da, baina indarra daukanean. Garrik gabe egon behar izaten du suak, egurra erre beharrean egosi dadin.

9. Txondorraren iraupena eta garbiketa

- **Erref:** ATA-005/022
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:36:05. **Bukatu:** 00:38:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Egurak egosten hamabost egun inguru behar izaten ditu. Bertan eman zituzten egun guzti horiek. Txondorra egosten den garaian, garbitu egiten da, freskatzeko. Aldiko kamara bat jeisten diote eta harrotu egiten dute. Aldiko laurogei zaku inguru betetzen zirela dio.

10. Abatza, zurezko ontzia

- **Erref:** ATA-005/024
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:40:28. **Bukatu:** 00:41:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Zurezko ontzi bat aipatzen du, abatza. Horrelakoak egiten zituztenak, "abatzgileak", dagoeneko ez direla bizi azaltzen du.

11. Ikazkinik ez

- **Erref:** ATA-005/026
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:44:16. **Bukatu:** 00:46:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikatz eginda jornal ona ateratzen dela uste du. Lehen bost ogerleko irabazten zituztela dio. Euskal Herrian ez dela ikatz egiten dio. Ameskoan ikatza arteekin egiten zutela kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com